

Bere arrisku-profil sendoa, kapitalizazio handia eta diru-sarrerren dibertsifikazioa nabarmendu ditu

Fitch-ek positibora hobetu du Kutxabanken perspektiba, eta epe luzerako ratinga BBB+en berretsi du

- **Bere errentagarritasuna batez besteko historikotik gora mantenduko dela eta interes-tasen jaitsieraren aurrean estatuko homologoek baino erresistentzia handiagoa izango duela baloratu du.**

2025eko martxoaren 3an. Fitch Ratings-ek Kutxabanken perspektiba egonkorretik positibora igo du, eta epe luzerako kreditu-arriskuaren (IDR) kalifikazioa 'BBB+'en berretsi du. Halaber, Kutxabanken Bideragarritasun Kalifikazioa (VR) 'bbb+'en berretsi du.

Fitch-ek bere ikuspegi positiboa perspektiba honetan oinarritu du: Kutxabanken errentagarritasuna batez besteko historikoaren gainetik egongo dela eta estatuko homologoek baino erresistentzia handiagoa izango duela interes-tasen jaitsieraren aurrean. Balorazio hori, kreditu-kalifikazioko agentziaren arabera, bankuaren diru-sarrerren dibertsifikazioan, kreditu-galera mugatuen historia luzean eta, Espainiako ingurunearen hobekuntza dela-eta, maileguen hazkundean izan daitekeen gorakadan oinarritzen da.

Arrisku-profil sendoa, kapitalizazio handia eta diru-sarrerren dibertsifikazioa hobea

Kutxabanken kalifikazioak arrisku-profil sendo batek, garapen ekonomiko handieneko eskualdeetako batean —Euskadin— ondo hedatutako sare batek eta arrisku txikiko bizitegi-hipoteken maileguetarantz haztapena duen negozioak babesten dituzte.

Horren guztiaren ondorioz, Fitchek azaldu duenez, aktiboen kalitatea sektoreko batez bestekoa baino hobea da sistematikoki. Kalifikazioek kapitalizazio handia eta antzeko tamainako homologoek baino diru-sarrerren dibertsifikazio hobea ere adierazten dituzte.

Kreditu-kalifikazioko agentziak bankuaren egiturazko errentagarritasun sendoagoa azpimarratu du, maximoetan dagoen emaitza operatiboaren estimazioarekin eta kreditukoak ez diren hornidurekin, ustekabeko galeren aurka koltxoi ona emango dutenak.

Bankuaren finantzaketa egonkorra eta likidezia sendoa ere nabarmendu ditu Fitchek, baita bere kapitalizazio iraunkorra ere. Bankuaren CET1 fully loaded ratioa eskakizunaren oso gainetik dago; eta Fitchek espero du Kutxabankek % 17tik gorako CET1 ratioarekin jardutea. 2024ko hirugarren hiruhilekoaren amaieran, bankuaren palanka-efektuaren ratio sendoa ere, % 8,7koa, Europako batez bestekoaren oso gainetik dago.